

## «Jan egiten dute»

TXILLARDEGI



KOSTATA bada ere, smetsi egin genuen azkenean 'violento' delakoek indarkeria, basakeria eta astakeria besterik ez dute barietatzen.

Hots, 'violento' horietxek topatzen ditugu, behin eta berriz. Gandhi-ren bideetan barrera beren osasuna arriskutan jartzten ari...

Zertan gara, beraz? 'Violentoak' dira, azkenean? ala, 'no-violentoak'? 'Violentoak', 'no-violencia' praktikatzan dute; eta 'violencia' ren kontrakoen aginduz, berriz, zafaririk, kolpatirik, odolzetatik, suertatzen dira beren lanpostua atxiki nahi duten 'Aenor'eko langile indargabeak... Nor da bortxakoa?

Harrigarria!  
Eta kontu hau ez da gaurkoa. 1970z geroztik (Baionako Katedrala lekuko), 'violentoak' dira bizia arriskatuz ere borroka bortxagabea daramaten bakarrak.

Arzalluz, Ardanza, Garaikoetxea, Bandrés, Odón Elorza, Cristina Cuesta, Mosquera, oso oker ez bagaude, ez dira sekula etzan lurgorrian asteetan barrera mokaurik hartu gabe. (Beste batzuk, Egigurenek kasu, Gandhi-gandik urrun xamar hautatu bide dituzte beren jokabideak).

Hortaz?  
Gehiegi irentsi beharrekoak. Eta herriaren defendatzailea omen den 'demokrata' batek markatu du bidea: «Salto-del-Negro-koek jan egiten dute». Bapoi!

Euskal Mc Swiney-aren bila ari bide dira probaketaileak. Apostu latza eta lotsagarria egiten duten!

«Jan egiten dute». Cork-eko aikateak eta Bobby Sands-ek ere jan egiten omen zuten... Laido gaitza betirako britaindarren historian. Baina guk Saldo-del-Negro-ko aberkideak bizirik eta etxean nahigo.

## Hitzegiteko sasoi?

PIARRRES XARRITTON



**HAUTESKUNDE** sasoi omen da, hiritar bakoitzarentzat hitzegiteko sasoi, bere kezka ta arrenkura propioak adierazteko parada; eta hauteskunde bidez herriaren giderrak eskuratu zituztenien kontuen eskatzeko ordua.

Arrenkura horiek hainbeste badira ordea, non ez baitira denak aipatzen ahal. Hor ditugu alabaina ardigasma egileak, mugalarik, arrantzaleak, ehiztariak, herritarak eta arrotzak, ihesi etorriak edo ez, langabezian dauden gizon eta emazte, zahar eta gazte guziki, bai eta urteik urtera eskualdeko eta departamenduko zergak itsuski goiti ari ikusten ditugun zerga-ordaintzale guzikiak.

Gure eskualdeko 11 zerrendaburuek eta kantoinamenduetako 70 hautagaiek nolozpait hunki dituzte halere, beren hautura, puntu horietatik batzu edo beste. Ondano ageriko zer arrakasta izanen duen bakoitzak.

Beren abertzale ikuspegia airtortzen diguten hautagaiek, eta beste batzuk ere adieritzen digute, laguntza berdina nahi duela euskaldun ikasgentzat edo irratientzat eta bestentzat; behar dugula ere Baionan unibertsitate oso bat, eta nolaz ez, gure Iparraldeko Biltzarrak, gutarik zenbaterik amestu diogun itxura eta boterearekin. Hor ere ikusiko nola entzunak izanen garen.

Puntu bat bada bizikartean, orain arte eskuratu ditudan hautagaien paper guzi-guziak ixilik daukatena: Alta bada, nik dakidala beharrehun urte badu guzietez, Iparralde honetan ez dugula horrelakorik ikusiz, hots politikagatik 60 bat euskaldun baditugula Frantziako gobernuak preso daukanak. Ez zaigu bada iduri ixilpean gordetzeko gaia dela hori; hitzegiteko sasoi delarik bederen!

Bainan egiaz hitzegiteko prest ote gara Frantsesak eta Euskaldunak? Eta Euskaldunak berak, gure artean?

## HEMEROTEKA

### ● EL CORREO ESPAÑOL

#### Epai okerra

Objektore intsumisioa erabat zintzoa izateak soldadutza egiteari uko egitearekin eta koherentea bere barneko sinetsiarekin eta, gainera, Estatuaren legitimitateari men egiteak, ezin dio zigor erantzukizuna salbuetsiko dion egoera ekarri eta, gainera, ez du baimentzen zeharo personalak diren sinetsienak legezko erantzukizunaren aurretik jartzea, horiek errespetagarriak izan arren.

EDITORIALA

### ● EL MUNDO

#### Gobernu hau oso garesti ari zaigu ateratzen

Atzo, garrantzi handiko bi



RICARDO YNACHO / EL MUNDO

industri eskualdek —Cantabria eta Azenorren ingurua. Liudion— greba orokorrak egin zituzten eta ia biztanleri osoa ateraz zen grebaren alde, gainera. Eskatzen zutena, hain zuzen, nahiko funtsezkoa da: ez dute industri deuseztatzen masiboko politikaren biktima bihurtu nahi.

Azken finean, alternatibak eskatzen dituzte. Baina Gobernuak ez du alternatibarik. Adabakiak baino ez ditu proposatzen, arazoa atzeratzeko neurriak (...)

Zalantzarik gabe, Gobernu hau oso garesti ari zaigu ateratzen. Eta okerrera da jakin ere ez

dakigula ordaintzen ari garenak zerbaiteko balioke ote duen.

EDITORIALA

### ● ARGIA

#### Oreka zaila izango delakoan

Espainiako gobernuare nonbait interesatuta dago HBri buruzkoak edozein bidetatik ikasten, non eta ez den pikutara bidalitzen Ajuria Eneako Ituna. Gobernuak ezingo luke zuzenean ETArekin kontakturik egin, ezingo luke herbuldu ere egin. Azken aientatuaq direla eta 'saiorik egingo balitz gobernuak txikituko bait lukete denen artean'. Ez datorrko gaizki, beraz, EAJ hain lagun izaki, horrelako mugimenduez zer emaitza eman lezaketen ikustea.

IÑAKI ZUBIONDO

## ZUZENDARIARI

### Irakaslego behin-behinekoa

Irakaskuntzak, zuzenki ala zeharka, ia gizarite osoari dagokion gauza izanik, egoera korapilatsua bizi duen eta honetan zeresan ugari eman ditu bai komunikabideetan baita beste eremutan ere.

Eskutitz honen bidez, Irakaskuntza Publikoaren interinoak nahiz ordezkioak, geuri larriki ukitzen digun arazoa adierazi nahi genuke, sindikatu guzuen aldarrikapen nagusienetako bat eta ardatz nagusi bihurtu den lanpostuak mantentzearen aldeko apostua, hain zuzen.

Jakin badakigu, hamaika arazo gorrien artean, geureak ez duela merezi arreta handirik, are guxtiago Jaurritzako arduradunen alde. Egoera azaletik aztertzea besterik ez dago, konturatzeko hemendik urte gutxi barru zein izango den ehundaka maisu-maistren zoritxarreko patua. Hainbat urtetako lanari amore eman, eta beste milaka langabetuen artean 'ongizate' gizarite birrindu honetan bere burua ezer gutxi balio duela ohartuko da agian. Beharbada, seme-alabaren bat izanez gero, bakar ihardundako eskolara sartuko du, biharko egunean bizitzeko aukeraren bat izan dezan. Eta agian, ordurako ez du gehiago hezkuntzaren kalitateak kezkatuko, gosea baretzeko eguneroko jan premiak baizik.

Irakaskuntza Publikoa deritzon alorrean ia bost mila langile gaude behin-behinekotasunean, horietarik erdia, gutxi gorabehera, eguneroko kontratuekin eta besteak bitarteko

egonkortasunean. Hezkuntza Sailaren jauntxokeria eta axolagabekeriari esker laster has daitekeen gatazkaren aurrean, interino eta ordezkoren antolaketak berrindartzea beharrezkotzat jotzen dugu, etekinik lortu ahal izateko. Zoritxarrez, eta honetan esperientzia luzea dugu, borroka ahalmeneren neurria eta gatazkaren intentsitateak bakarrik baldintza ditzaizkete gure erreindikazioen lorpena.

Dagoeneko ehundaka langile elkartu gara eronka honi aurre egiteko, plataforma osatzearekin batera mobilizazio eta borroka motak aztertuz. Baina guztiaren parte hartzea eta ekarpena ezinbestekotzat jotzen dugu, guztiotzako lan finkoa bermatu ahal izan dadin.

INTERINO ETA ORDEZKOEN KOORDINAKUNDEA

Bilbo

### Amicitie prope et longe

Ezin akorduan nago orain, eta ezin esan, beraz, noarena den izenburutzat jarri dudan esaldia.

Baliteke Laercio izeneko autorearena izatea, edo Ovidio jaunarena... Lastima nire kasuon datu zehatzik ez izatea: zein liburutan, zein orrialdetan, zein argitaleretan, zein argitaralditan, edo zein mendetan irten zen mundura esaldi hori. Orain Bernardo Atxagaren liburua: 'Behi euskaldun baten memoriak' irakurtzeko zoriona izan dudalako eta nire iritzia azaldu nahian nabiltzean behin eta berriz

errepikatzen dut lelo gisa goiko esaldia. Berorren esanahia jakingo ban!

Nire ustez, eta egunkari honetan agerturiko kritika batzuk alde batera utzirik, asteasuaren ideia printzipala amistadea da, amistadearen aldeko proklama xumea eta umila, baina setatia: behi txiki batena. Antza, behi txikiak behi basatiarekin eduki zezakeen amistadea frakasora kondenaturik zegoen hasieratik, zeren behi basatiak zerabilen itsulatan ilun eta mutua arrazismo hutsetik zertorian eta horren ondorioz, basurde artera joan zen betiko.

Gainortzeko behiak menpeko hutsak dira. Galderarik ere ez dute egin. Behi txikia, ordea, bakardaderako bidetik abiatu aurretik egiten ditu erreflexio batzu gure gizaritate edo, nahai bada, gizabanakoaz.

Nik, behi kontuan, kontrako iritzia neukan liburua irakurri aurretik: uste nuen behi guztiak bazeukatela oso ataraxia handia, izugarri handia, inklusibe fabrikarik atera berria den kotxerik distiranteena behien ondotik pasatzen... behiek, zirkinik ez. Ez da delarria ere mugitu! Horixe ataraxia handia!

Baina behia monjarekin solasean ibiltze horietatik ateratzen dira liburura oso esaldi animosoa, zeintzuk irakurlearen bihotz bakartirako ere argia eta adorea gratis baidakartzate. Horrexeagatik, eskerrik hemendikex bidali nahai dizkitoi autoreari eta bigarren parte eta hirugarrena noizkoak diren galdetu.

C.R.L.

Bilbo


## GAIA JARRITA

### Bai

#### Independentziari

Noiz arte baina Madril ta Paris hainbat traba hainbat beto? Eki European ulertu dute azkarrago ta hobeto ez al daukagu eskubiderik nahi bezala egoteko? Burujabe ez menpeko (Bis) ehundaka urtez burrukan gogor herri libre izateko gure ametsak independentzitu ditugu asebeteko (Bis).

IÑAKI MURUA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarle: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentee: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUCIENA ETXEZAHARRETA, INAKI URUA

Sustatpena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerrak: ANTZA S.A. Industrialedo 01-02. Pablihoak / 20160 Lasarte-Oria / 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakiruna, 16-1 / 20010 Donostia / 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1 ezker / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroak: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iñitzi dorrea) / 31011 Iñitzi / 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuna / 48002 Bilbo / 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galupena katu / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11